

ELIZA

ASISKO FRANTZIZKO TA ASISKO KLARA

Baliteke Eleizaren barnean ditugun santu bikote maitagarriena izatea. Jesusen Ebanjelioaren egiazko argazkiak dirudie. Urteak joan eta urteak etorri, euron gaurkotasuna goi-goian dago. Baina ez da nire asmoa euron gaurkotasuna azpimarratzea. Ezta euron espiritualitatearen lilura goratzea be. Bakarrik nai dodana da bioi buruz kaleratu izan dan euskerazko liburu mardula aurkeztea.

Eskertzekoa da Frantziskotarrak, Arantzazuko bosgarren mendeurrenean, egindako Ian zoragarria. Asisko Frantziskoren Idazkiak, Biografia, Garaiko dokumentuak eta Asisko Klararen Idazkiak euskaraz jarri deuskuez. Gainera euskara ederrean! Asisko santuok maite doguzan euskaldunok baditugu motibak pozik egoteko.

Batera nator oso-osoan, frantziskotarren Ministro probintzialak aurkezpenean dakazan berbakin: "Uste dugu Asisko Frantzisko ondasun unibertsala dela, garai guztietako eta edonongo gizon-emakumeen ondarea". Baita Ramon Irizarren liburuaren sarrerako berbakin be: "Pertsonaia gutxi dira historian San Frantziskok bezelako arreta piztu dutenak, ez bere jarraitzaile kontaezinen aldetik bakarrik -eta teologoek eta espiritu-bizitzako adituen aldetik-; kontaezinak dira baita ere Frantziskorengana hurbildu diren historiagile eta poetak, idazle eta pintoreak...".

ELIZA

81

Merezi dau goitik beera Ramon Irizarren sarrera irakurtzea. Luzea da, 35 orrialdeko sarrera. Baina benetan aberatsa. Ez bakarrik Frantziskoren garaiko egoera erlijioso, zoziala eta politikoa ezagutzeko, baita bere bizi-esperientzia eta bizi-proiektuaren ardatz nagusiak jakiteko be.

Irizarrek dinoanez, iru atal ditu liburu onek: "Batetik, Frantzisko beraren idazkiak eta, bestetik, Frantziskoren heriotza osteko hamarkadetan haren inguruan sorturiko literatura aberatsa. Hirugarren atalean, Santa Klararen idazkiak ematen dira".

Anaia Eguzkiaren Kantika

Idazki bakotzak bere sarreratxoak dauko. Batetik noiz idatzia dan esateko eta bestetik idazki orren mamia laburpen gisa aurkezteko. Onena adibide bat jartea izango da. "Anaia Eguzkiaren Kantika" idazki sonatuaren sarreran auxe dino:

"Italiar literatura jaioberriaren testigu dugu idazki hau, Umbriako dialektoan idatzia; oso balio handikoa da, beraz, literatur ikuspegitik, baina Frantzisko kristauaren bizitza eta heriotzaren laburbilduma paregabea ere bada.

Bizitzaren azken aldera iritsia zen Frantzisko; 1225eko apirila edo maiatza zen. Frantziskok osasuna hautsia du, eta ez du ia ezer ikusten. Eta kexu eta protesta egin ordez, kantuari ekiten dio, izadi osoa anaiatzat ematen digun 'Goiko, ahalguztidun, Jaun ona' goresteari. Gerotxoago, 1225eko ekainean, barkamenaren ahapaldia eransten dio kantikari (10-11 tx.ak). Eta heriotzatik hurbil dela (1226ko urrian), arreba heriotzari egiten dio kantu (12-13 tx.ak).

Kantika hau ez da beroaldi panteistak edo gaztaroko erromantizismoak eragina, Frantzisko fededunaren adierazpena baizik: gauzak gaizki doazkionean eta behartsu eta hil beharrez sentitzen denean, bere Jaunari kantu egitera ausartzen da

eta, eguzkiaren argiak begietan min ematen dion arren, eguzkiari ere kantu dagio, Jaunaren 'irudi' delako. 'Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun onaren' dohain da guztia eta haren aztarna eta ukitua darama.

Hasierak eta amaierak Frantziskoren kristau-jarreraren mamia biltzen digute: Jainkoaren gorespena, esker ona eta 'hura apaltasunez zerbitzea' da guztiaren iturburu eta helburu".

Eta jarraian dator "Anaia Eguzkiaren Kantika" euskera obezinean itzulita. "Karmel"go irakuriei finak merezi dabe testu zoragarri au bein eta barriro dastatzea. Badago "Orduen liturjian" euskeratuta beste testu bat be. Baina ni neuri geiago gus-tatzen jat itzulpen au

- 1 Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona,
zureak gorespenak, aintza, ohorea eta bedeinkapen dena.
- 2 Zuri, Goi-goiko horri, dagozkizu bakarrik,
eta ez da gizakirik zu aipatzeko duin denik.
- 3 Goretsia zu, ene Jauna, zeure sorkari guztiakin,
batez ere anaia eguzki jaunarekin:
bera da egun-argia eta berarekin diguzu egiten argi.
- 4 Eder eta distiratsu da dirdira bizitan:
zure, Goi-goiko horren, irudi da.
- 5 Goretsia zu, ene Jauna, arreba ilargi eta izarrengatik:
argi, bitxi eta eder dituzu zeruan jarri.
- 6 Goretsia zu, ene Jauna, anaia haizearengatik,
aire, laino, oskarbi eta edozein eguraldigatik:
beronen bidez ematen diezu mantenua zeure sorkariei.
- 7 Goretsia zu, ene Jauna, arreba urarengatik:
txit ongarri da, apal, bitxi eta garbi.
- 8 Goretsia zu, ene Jauna, anaia suarengatik:
beronen bidez argitzen duzu gaua
eta ederra da, alaia, sendoa eta indartsua.

- 9 Goretsia zu, ene Jauna, gure arreba ama-lurragatik:
berak gaitu mantentzen eta gobernatzen,
eta hainbat fruitu, lore koloretsu eta belar sortarazten.
- 10 Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioa dutenengatik barkatzen
eta gaixotasuna eta larrialdia eramaten:
- 11 zorionekoak bakean sufritzen dituztenak,
zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta.
- 12 Goretsia zu, Jauna, gorputzeko gure arreba heriotzagatik:
ez da gizaki bizidunik ihes egin diezaiokeenik.
- 13 Zoritxarrekoak bekatu larrian hilko direnak!
Zorionekoak zure borondate santuan aurkituko dituenak,
ez baitie kalterik egingo heriotza bigarrenak!
- 14 Gorets eta bedeinka ezazue nire Jauna,
eman eskerrak eta apaltasun handiz zerbitza".

Osagarriak

Liburuaren amaieran, geigarri oneek dakaz: Frantzisko eta Klararen kronologia; bion idazkietako gaien aurkibidea; biografietako konkordantzia-etaulak. Frantziskoren mundua ezagutzeko mapen azalpena ta leku-izenen aurkibidea.

Niretzako ondo egongo zan pertsonen izen-zerrendaren aurkibidea. Baita Bibliako aipamenen aurkibidea ere.

Aurtengo urtean, nire eskuetara eldu izan diran euskerazko libururik ederrenak bi izan dira. Bata orain aipatu doguna. Eta bestea, "Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa". Txalotzekoak dira Arantzazuko frantziskotarrak eta Markinako karmeldarrak burututako Ian bikainok.

A. Olea